


Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

PEDAGOGIA 2. MAILA - 2025/2026

4. MODULUA: *“Hezkuntza ikerketa eta berrikuntza”*

MODULUKO DIZIPLINARTEKO LANA EGITEKO GIDA
(IV. DILANa)



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



AURKIBIDEA

1.- IV. moduluan garatu beharreko gaitasunak eta ikaskuntza emaitzak: Hezkuntza Ikerketa eta Berrikuntza	3
2.- IV. moduluko diziplinarteko lana (DILAN)	3
2.1.- Egin beharreko lana	4
2.2.- Metodologia	4
2.3.- Moduluko irakasgairen ekarpena DILANari	6
3.- DILANA egiteko jarraitu beharreko prozedura	8
4.- Txostenaren egitura	9
5.- DILANaren ebaluazioa	10
5.1.- Ebaluazio-adierazleak eta irizpideak	
5.2.- Kalifikazioa	11



1. IV. moduluan landu beharreko gaitasunak: Hezkuntza Ikerketa eta Berrikuntza

Gaitasunak

- IV.1.- Ikerketaren oinarrizko ereduak eta etapak ezagutzea, bai dimentsio teorikoan bai dimentsio aplikatuan.
- IV.2.- Hainbat ikerketa motaren emaitzen oinarrizko azterketa eta interpretazioa egitea, eta horiek eraikitze prozesua ulertzea.
- IV.3.- Hezkuntzako esku-hartzeak proposatzea eta ebaluatzea, hezkuntza-aldaketak sustatzeko aldera, etengabeko hobekuntzaren ikuspegiaren barruan.
- IV.4.- IKTak funtsezko tresna gisa erabiltzea, esku-hartzeko eta aldatzeko prozesuak kontuan hartuta.
- IV.5.- Txosten egituratu eta argumentatua idatzi, ezarritako irizpide akademiko eta formalak erabiliz gaitasuna garatu da
- IV.6.- Moduluan jorratu diren gaiei dagozkien ideiak, pentsamenduak ahoz azaldu ikastalde orokorraren aurrean gaitasuna garatu da

Ikaskuntza emaitzak

- a. Argudioen bidez azaltzea ikerketaren oinarrizko osagaiak nola txertatzen diren dimentsio teorikoan eta aplikatuan.
- b. Dokumentu bat egitea, ikerketaren testuingurua zehazteko prozesuaren azterketa kritikoa eta gogoetatsua jasotzeko.
- c. Esku-hartzeko proposamen bat garatzea, egokia zaion metodologia erabilizurrats guztiak jarraituz: arazoak identifikatu, informazioa bilatu, informazioa analizatu eta konklusioak aurkeztu.
- d. Esku-hartzerako jarraibideak proposatzea ikerketaren konklusio eta helburuen arabera.
- e. Erabilitako ikerketa-prozesuaren arabera hezkuntza-aldaketak dokumentu batean jasotzea.
- f. IKTak ikerketetan laguntzeko bitarteko gisa erabiltzea, ikerketa-prozesuaren fase bakoitzaren eginkizunetara egokituta.

Iraunkortasun maparen ikaskuntza emaitzak

- C1.HO.1.2.- Ezagutzen ditu gizarte- eta hezkuntza-arazoetan inplikaturako arrazoi, ondorio eta subjektu nagusiak, tokian-tokian zein oro har (gure modulura egokituta).
- C2.HO.1.1.-Oinarrizko ezagutzak ditu hezkuntza-jarduerak gizartean, ekonomian eta ingurumenean izan ditzaketen eraginak identifikatzeko.
- C2.HO.1.5.- Bere lanbide-eremuko proiektuetan justizia soziala baloratzeko irizpideak ezagutzen ditu (adibidez, ekitatea, inklusioa, giza eskubideak, genero-ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.).
- C4.HO.1.1.-Bere lanbide-eremuan iraunkortasunarekin lotutako arazo etikoak ezagutzen ditu (adibidez, desberdintasuna, kontsumismoa, diskriminazioa...).
- C4.HO.1.3. Gizarte konpromisoa eta erantzukizun sozial korporatiboaren kontzeptuak ezagutzen ditu, hauen aukerak eta mugak ezagutuz.
- C2. HO.2.2 Planteatutako arazo baten aurrean, badaki hainbat hezkuntza-proposamen aztertzen eta ebaluatzen eta jasangarriena erabakitzen.
- C4.HO.2.2. Badaki nola aztertu eta ebaluatu jasangarritasunaren aldeko hezkuntza programak, proiektuak eta jarduerak.



C4.HO.3.2. GJHak sustatzeko hezkuntzan esku hartzeko proposamenak diseinatu, planifikatu, inplementatu eta ebaluatu ditzake (kalitatezko hezkuntza, genero-berdintasuna, kontsumo iraunkorra...).

2. IV. moduluko diziplinarteko lana (DILANa)

Bigarren mailako IV. moduluak, alegia “Hezkuntza Berrikuntzako Proiektu bat Ikertzea edo Ebaluatzea”, lotu egiten ditu aurreko hiru moduluetan eskuratutako oinarri teorikoak, garapen profesionalerako esku-hartzea, eta hezkuntzako berrikuntza eta hobekuntza. Azken finean, pedagogo gisa lan egiteko prestatzen dituen hezkuntza-prozesuaren dimentsio guztiak bateratzea ahalbidetzen du.

Modulua ikerketaren oinarrizko osagaiei lotutako ezagutzen inguruan egituratzen da, dimentsio teorikoan zein aplikatuan. Helburua da ikasleei ikerketa-prozesu osoa garatzen laguntzea, fase guztietan beharrezkoak diren gaitasunak landuz: arazoak identifikatzea, informazioa bilatu eta aztertzea, eta ondorioak modu egokian aurkeztea. Ondoren, hezkuntza esku-hartzeen diseinua landuko da etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik: esku-hartzeak planifikatzea, ezartzea eta ebaluatzea. Prozesu horretan, IKTe funtsezko zeregina izango dute berrikuntza- eta aldaketa-prozesuetan tresna estrategiko gisa.

2.1. Egin beharreko lana

IV. moduluko diziplinarteko lanean (aurrerantzean DILAN), helburua da tresnen eta datuen bidez hezkuntza-prozesu bat dokumentu eta deskribatzea (ikerketa-zirriborroa), eta prozesu hori hobetzeko alternatibak diseinatzea. Eginkizun hori kasu praktiko baten bidez egingo da. Ikasleak ikertu beharreko objektua kontzeptualki mugatuko du, datuak jasoko ditu (edo, beharrezkoa balitz, fikziozko datuak erabiliko ditu), ikasitako teknikak aplikatuz aztertuko ditu, eta hobekuntzarako ekintzak proposatuko ditu.

2.2. Metodologia

DILANa taldekako lana da. Talde bakoitzak gutxienez 3 kide eta gehienez 5 kide izango ditu. Bi aukera desberdin daude:

- A. Ikasleek lortutako proiektu erreal batetik abiatuta, proiektu horren (edo haren alderdi baten) gaineko ikerketa edota ebaluazioa diseinatu eta gauzatu beharko dute. Horretarako, ikastetxean jarduteko (eta datu-bilketarako) baimena lortu eta adostu beharko dute.
- B. *In situ* sarbiderik ez badute, Interneten bilatutako hezkuntza-berrikuntzako proiektu erreal batean oinarrituta ikerketa edota ebaluazioa diseinatu beharko dute ikasleek. Kasu honetan, informazioaren analisisa fikziozko datuetan oinarritu daiteke.

DILANeko talde-lanaren jarduerak irakasgai bakoitzaren lan-zama osoaren % 20 hartzen du. Ehuneko hori honela dago banatuta irakasgai bakoitzean: 6 ordu aurrez aurreko eskola praktikoetan eta 24 ordu eskolaz kanpoko lanetan.

DILANeko talde bakoitzaren berariazko jarraipena irakasle-tutore batek egingo du. Talde bakoitzari DILANeko irakasle-tutorea lauhilekoaren hasieran esleituko zaio. Irakasle-tutore horrek taldeari argibideak emango dizkio, prozesuaren jarraipena egingo du eta ebaluazioa koordinatuko du.

Eginkizunak eta bakoitzari dagozkion irakasgaiak ageri dira hurrengo laukian:

Eginkizunak	DILAN mota	Esku-hartzen duen irakasgaia
1. Ikastegiari lan-proiektua aurkeztea.	A	
2. Berrikuntza-proiektu edota jardura ezagutzea (modu zuzenean eta dokumentu bidez), eta horren azterketa bibliografikoa egitea (gukienez 15 erreferentzia bibliografikoak erabiliz); batetik, berrikuntzako proiektua edo esperientzia eta bere garrantzia zehazteko, hezkuntzaren eta teoriaren ikuspegitik; eta bestetik, ikerketa- edo ebaluazio-egitasmoa adierazteko. Egindako azterketaren sintesia egitea, eta erabilitako aipuak eta erreferentzien zerrenda APA arauen arabera aurkeztea.	A B	- Hezkuntza Diseinua eta Berrikuntza. - Hezkuntza Arloko Ikerketa. - Hezkuntzarako Informatika. Baliabideak.
3. Ikerketa- edo ebaluazio-arazoa adieraztea: ikuspegia, helburuak, alderdiak, galderak, hipotesiak...	A B	- Ebaluazioa Hezkuntzan. - Hezkuntza Arloko Ikerketa.
4. Aukeraturako planteamendu metodologikoa diseinatzea, eta erabakiak hartzea gai hauei buruz: ikerketa edo ebaluazio mota, informazio-bilketa, analisia eta kalitate-irizpideak, egutegia.	A B	- Ebaluazioa Hezkuntzan. - Hezkuntza Arloko Ikerketa. - Informazioa biltzeko eta aztertze prozedurak.
5. Datuak jasotzea.	A	- Ebaluazioa Hezkuntzan. - Informazioa biltzeko eta aztertze prozedurak. - Hezkuntzarako Informatika Baliabideak.
6. Datuak aztertzea. Proiektu osoa bideragarria izan ezean, aldaera, ezaugarri edo dimentsio bati buruzko datuak jaso eta azter ditzatela.	A	- Ebaluazioa Hezkuntzan. - Informazioa biltzeko eta aztertze prozedurak. - Hezkuntzarako Informatika Baliabideak.
7. Fikziozko datuen bilketa eta analisia	B	- Ebaluazioa Hezkuntzan. - Informazioa biltzeko eta aztertze prozedurak. - Hezkuntzarako Informatika Baliabideak.
8. Ondorioak adieraztea.	A B	- Hezkuntza Diseinua eta Berrikuntza. - Informazioa biltzeko eta aztertze prozedurak.
9. Hobetzeko proposamenak adieraztea.	A B	- Hezkuntza Diseinua eta Berrikuntza.
10. Ikerketa- edo ebaluazio-txostena idaztea.	A B	- Hezkuntza Arloko Ikerketa.
11. Lanaren aurkezpena diseinatzea.	A B	- Hezkuntzarako Informatika Baliabideak.
12. Lana aurkeztea eta defendatzea.	A B	

2.3. Moduluko irakasgairen ekarpena DILANari

- **Hezkuntzaren Diseinua eta Berrikuntza.**

Irakasgai honi dagokionez, DILANaren saio teoriko eta praktikoetan, ikasleek egindako lanak hiru helburu hauek ditu: 1.- Gaur egun, hezkuntza-zentroetan lehentasunez garatzen ari diren berrikuntza-ildoak identifikatzea eta ulertzea, 2.- Proiektu berritzaileak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko prozesuan, administrazioak zentroak sustatzeko, babesteko eta aholkatzeko erabilitako prozedurak ikustea, 3.- Irizpideak edukitzea, berrikuntzak hobetzeko proposamenak, lorpenak eta zailtasunak ebaluatu ahal izateko, jasotako datuen arabera.

Helburu horiek lortzeko, talde bakoitzak jarduera hauek egingo ditu:

- Esleitutako proiektu berritzailea gelako taldeari aurkeztea, eta modu ulergarrian irakurtzea.
- Zentroak eginiko prozesua deskribatzea, berritzeko beharra sumatu zutenetik taldeak arduradunekin harremanetan jarri arte, eta, ahal izanez gero, prozesuaren faseak, eragileak, baliabideak, lorpenak eta zailtasunak adieraztea.
- Berritzeko proiektua abiarazteko eta ebaluatzeko prozesua deskribatzea, iraupena, baliabideak, inplikaturako pertsonak, eta abar adierazita.
- Lortutako berrikuntzako prozesu-produktuaren balorazio orokorra egitea, eta hobetzeko proposamenak egitea.

- **Ebaluazioa Hezkuntzan.**

Irakasgai honen xedea ikaslea hezkuntzako ebaluazio-prozesua ulertzeko gai izatea da, prozesu horren funtzioak, eremuak, modalitateak eta ereduak kontuan hartuta. Hezkuntzaren ebaluazioari dagokionez, DILANeko lanean, hauxe azpimarratuko dugu: ebaluatu beharreko objektua, inplikaturako audientziak, ebaluazioaren helburuak eta abar mugatzearen garrantzia. Premisa horietatik abiatuta, ikasleak gai izan behar du xede horretarako egokia den ebaluazio-modalitatea, -diseinua eta -eredua aukeratzeko.

Talde-lanaren bidez, ikasleek jarduera hauek egingo dituzte, DILANaren barruan:

- Ebaluatu beharreko objektua mugatzea, eta inplikaturako audientziak identifikatzea.
- Diseinu, modalitate eta eredu egokia aukeratzeko, berrikuntza-proiektua ebaluatzeko.
- Berrikuntza-proiektuari buruzko informazio kualitatiboa jasotzea.
- Jasotako informazio kualitatiboa modu kualitatiboan aztertzea.
- Ebaluazio-txostena egitea.

- **Hezkuntza Arloko Ikerketa.**

Irakasgaiaren xedea da ikasleek hezkuntzako ikerketen aniztasun metodologikoa ulertzeko gai izatea, baita ikerketa edo ebaluazio bat egiteko eta diseinatzeko unean irekitzen diren aukerez jabetzea ere. DILANean, irakasgai honi dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratuko dira: ikertu edo ebaluatu beharreko berrikuntza-proiektuari lotutako dokumentazio-iturriak baloratzea eta aztertzea; ikertzeko modalitateak eta metodologiak aldi berean ematen direla jakitea; hezkuntza arloko ikerketa zientifikoen prozesuan parte hartzen duten jarduerak identifikatzea; eta, interesekoak izan daitezkeen arazoei edo gaiei erantzuteko ikerketa- edo ebaluazio-planak diseinatzeko.

Talde-lanaren bidez, ikasleek jarduera hauek egingo dituzte, DILANaren barruan:



- Literatura zientifikoan jasotako informazioa aztertzea eta lantzea.
- Aukeratutako berrikuntza-proiektuari lotutako ebaluazio- edo ikerketa-arazoak adieraztea.
- Ikertzeko edo ebaluatzeko proiektu bat egitea.
- Egindako lanaren amaierako txostena egitea.

- **Informazioa Bilketa eta Analisi Prozedurak.**

Irakasgai honen xedea da informazio-bilketaren testuingurua zehaztea, errealitatea ezagutzeko prozesu baten barruan. Horretarako, informazioa biltzeko prozeduren, tekniken eta tresnen azterketa teorikoa eta praktikoa egiten da, eta emaitzak aztertzen dira. DILANean, bere eginkizuna lotuta dago informazio kuantitatiboa biltzeko tresnak aukeratzeari eta/edo egiteari.

Ikasleek honako jarduera hauek egin beharko dituzte:

- Zein alderdiri buruzko informazioa jaso behar den zehaztea, metodologia kuantitatibo baten ikuspegitik.
- Informazioa biltzeko tresna egokiak sortzea eta aplikatzea.
- Sortutako tresnen kalitate teknikoa aztertzea.
- Bildutako informazioa bitarteko informatikoen bidez aztertzea.
- Tresnei eta emaitzei dagokien txosten teknikoa egitea.

- **Informatika Baliabideak Hezkuntzan**

Irakasgai honen bidez, informatika-baliabideak erabiltzeko gaitasunak garatu nahi dira, hezkuntza-berrikuntza eta -ikerkuntzaren arloan, eta, zehazki, bi arlo hauetan: datu-baseen informazio akademikoa berreskuratzea, eta datuak aztertzeko programak erabiltzea. Hartara, DILANean, landuko dira informazio bibliografikoaren bilketa zein berreskurapena eta datuen kudeaketa, informatika-programa egokiaren bidez.

Ikasleek honako jarduera hauek egin beharko dituzte:

- Lan-proiektuari hobekien egokitzen zaizkion zerbitzariak eta datu-baseak aukeratzea.
- Informazioa biltzeko ekuazioak modu egokian adieraztea, eta bilaketak egitea, hainbat datu-basetan.
- Lortutako emaitzen egokitasuna eta garrantzia balioestea.
- Datu-artxiboak inportatzea eta esportatzea, hainbat formatutan.
- Datu-artxiboetan beharrezkoak diren aldaketak egitea, eta aldagaiak eta kasuak sortzea eta aldatzea, proiektuaren helburuen arabera.
- Emaitzak lortzea eta interpretatzea, proiektuaren helburuen arabera beharrezkoak diren datuak aztertuta.

3. DILANa garatzeko prozedura

JARDUERAK/EGITEKOAK	ASTEAK /EPEA ¹	ESKU-HARTZEAK ²
Taldea eratzea eta zentroa edota proiektua aukeratzea		- Irakasgai guztiak
1. harremana zentroarekin: dokumentazioaren bilketa edota arduradunaren bati elkarrizketa. Proiektua inplementatzen ari den saio baten balizko behaketa	2-3	- Tutorea - Hezkuntzaren Diseinu eta Berrikuntza
Dokumentazioa aztertzea	3	- Hezkuntzaren Diseinua eta Berrikuntza - Hezkuntzarako Informatika Baliabideak
Ikerketa/ebaluazioaren arazoaren hasierako formulazioa.	4	- Hezkuntzaren Diseinua eta Berrikuntza - Hezkuntza Arloko Ikerketa - Ebaluazioa Hezkuntzan
Tutorearekin hitz egitea. Lan-egitasmoa zentroan garatu	5-6	- Tutorea
2. harremana zentroarekin: plana negoziatzea (B aukera izan ezik)	7	- Tutorea
Arazoa adieraztea. Bibliografia aztertzea.	7	- Hezkuntza Arloko Ikerketa - Ebaluazioa Hezkuntzan - Hezkuntzarako Informatika Baliabideak
Ikerketa/ebaluazio-proiektuaren aurkezpena	9	- Irakasgai guztiak
Tutorearekin hitz egitea	9	- Tutorea
3. harremana zentroarekin: Informazioa biltzea. B aukera; datu-bilketaren simulazioa	11	- Informazioa biltzeko eta aztertzeko prozedurak - Ebaluazioa Hezkuntzan - Hezkuntzarako Informatika Baliabideak
Informazioa aztertzea	12	- Informazioa biltzeko eta aztertzeko prozedurak - Ebaluazioa Hezkuntzan - Hezkuntzarako Informatika Baliabideak
Ondorioak eta hobetzeko proposamenak	13	- Informazioa biltzeko eta aztertzeko prozedurak - Hezkuntzaren Diseinua eta Berrikuntza
Amaierako txostena	14	- Hezkuntza Arloko Ikerketa
Aurkeztea eta defendatzea	15	- Hezkuntzarako Informatika Baliabideak - Tutorea

- Proiektuaren aurkezpena martxoaren 18an izango da.
- Txostenaren aurkezpena eta defentsa maiatzaren 15ean izango da.

¹ Astea/epea jarduerak amaituta egon behar duen asteari egiten dio erreferentzia.

² Jarduerak eta eginkizunak egiteko behar den prestakuntzaz arduratzen diren irakasgaiei buruz ari gara. Zenbait kasutan, taldeari esleitutako tutorea da.

4. Txostenaren egitura

DILANaren amaierako txostenak atal hauek edukiko ditu:

1. Azala: Lanaren izenburua: Egileak. Gradua. Ikasturtea. Emateko data.
2. Aurkibidea.
3. Laburpena.
4. Aurkezpena. (gehienez orrialde 1)
5. Testuingurua eta oinarriak. Proiektuaren edo berrikuntza-esperientziaren eta ikerketa- edo ebaluazio-arazoaren esparrua aurkeztea. (7-10 orrialde).
6. Helburuak eta ikerketa- edo ebaluazio-arazoaren deskribapena (orrialde 1)
7. Egindako ikerketa-prozesua. Proiektu osoa gauzatu ez bada, proiektu osoa deskribatu beharko da eta praktikari eskainitako zatia erantsiko zaio. (5-7 orrialde).
 - 7.1. Aukeratutako metodoa. Metodoa deskribatzea eta justifikatzea.
 - 7.2. Datuak biltzeko teknikak.
 - 7.3. Datuak aztertzeko teknikak.
 - 7.4. Parte-hartzaileak eta aukeraketa-irizpideak.
 - 7.5. Kalitate-irizpideak.
8. Eraitza nagusiak. (5-8 orrialde).
9. Ondorioak. (orrialde 1).
10. Hobetzeko proposamenak (1-2 orrialde inguru)
11. Bibliografia.
12. Eranskinak.



5. DILANaren ebaluazioa

5.1. Ebaluazio-adierazleak eta irizpideak.

1.- Txosten idatzia

- Egokitasuna: txostenaren edukiak aztergaia osorik eta modu koherentean azaldu behar du, ikertu edo ebaluatu den kasu praktikoari emandako erantzuna modu egokian ulertzeko moduan.
- Informazioaren antolaketa: Edukia modu argi eta koherentean egituratu behar da, dokumentuan adierazitako egiturari jarraiki), ikerketa edota ebaluazio-txosten baten oinarrizko zatiak argi bereiziz: testuinguruaren zehaztapena, erabilitako metodologia, emaitzak eta ondorioak.
 - Testuingurua eta teoria-esparrua: berrikuntza-esperientziaren ikerketa- eta teoria-esparruak erreferentzia egokiak eta testuinguru argia izan behar ditu.
 - Metodologia: diseinua, parte-hartzaileak, datuak biltzeko eta aztertzeko teknikak, kalitate-irizpideak eta hartutako erabakien arrazoiak argi azaldu behar dira.
 - Emaitzak: lortutako emaitzak modu argian aurkeztu behar dira, ikerketaren edo ebaluazioaren helburuen arabera. Horrez gain, grafiko, lauki eta taulak modu egokian zenbakitu eta izendatu behar dira.
 - Ondorioak: arazoaren ikuspegi osoa eskaini behar dute eta eskuratutako datuetan oinarrituko dira. Ondorioen argudioek argiak eta koherenteak izan beharko dute.
 - Hobekuntza-proposamenak: berrikuntza-proiektua hobetzeko proposamenen koherentzia-maila proiektuaren helburuekiko, betiere ikerketatik eratorritako ondorioetan oinarrituta.
 - Bibliografia: dokumentuak argitaratzeko APA arauari jarraiki aurkeztuko da bibliografia-erreferentzien zerrenda.
- Idazketa-kalitatea: idatziaren zuzentasuna eta adierazpena unibertsitate-mailako eskakizunaren arabera izango dira, bai forma aldetik (ortografia, aipua, bibliografia-erreferentziak...), baita idatzizko adierazpenaren koherentzia eta kohesioari dagokienez ere.
- Hezkuntza-prozesuen azterketan diziplina ezberdinetatik eratorritako ebaluazio eta analisi tresnak erabiltzea.
- Hezkuntza-prozesuen azterketan diziplina ezberdinetako argudioen erabilera.

2.- Ahozko aurkezpena. Komunikatzeko gaitasuna, informatika eta ikus-entzunezko baliabideen kalitatea, aurkezpenaren antolaketa, eskaintako informazioaren kalitatea eta taldearen parte-hartzea.



5.2. Kalifikazioa.

1. DILANaren kalifikazioa taldekoa da. Hala ere, salbuespen modura banakako kalifikazioa ezarri daiteke.
2. DILANaren kalifikazioak % 20ko pisua du irakasgai bakoitzaren kalifikazioan.
3. DILANaren kalifikazioa prestakuntzako aurrebaldintza da. Irakasgai bakoitzean kalifikazioa jaso ahal izateko, DILANaren kalifikazioa izatea ezinbestekoa da. Ikasle guztiek DILANA egin behar dute, moduluko irakasgaietan nota eduki ahal izateko.
4. Irakasgai bakoitzean, moduluko DILANak 10etik 2 puntuko pisua du. Moduluko irakasle-taldeak ebaluatuko du, eta tutoreak dagokion taldearen ebaluazioaren koordinazioa eta jarraipena egingo ditu. Gainerako 8 puntuak irakasgai bakoitzaren programan zehaztutako ebaluazio-irizpide eta prozeduren arabera lortuko dira (azterketa, portfolioa, etab.). Edozein irakasgai gainditzeko, irakasgaiaren ebaluazioan zehaztutako baldintzez gain, ezinbestekoa da DILANean gutxienez 1,5 puntu lortzea.
5. DILANari dagozkion 2 puntuak honela banatzen dira:
 - a. **DILANA amaitzea: 0,5 puntu.** Irakasgai bakoitzaren irakasleak egiaztatuko du gutxienerako baldintzak betetzen diren ala ez, eta tutoreak balorazioak jasoko ditu.
 - b. **Ahozko aurkezpena: 0,5 puntura arte (0 / 0,25 / 0,5).** Aurkezpenaren ebaluazioa aurkezpena entzungo duen epaimahaiak egingo du. Tutoreak, moduluaren irakasle batek eta ikasle batek osatuko dute epaimahaia, Aurkezpena ikasturtearen azken ostiralean egingo da.
 - c. **Txosten idatzia: 1 puntura arte (0 / 0,25 / 0,5 / 0,75 / 1).** Txostena paperean eta formatu digitalean entregatuko da, ikasturtearen azken aurreko astean (2. lauhilekoaren 14. astea). Ebaluazioa IV. Moduluaren Diziplinarteko Jarduera egiteko gidako irizpideen arabera egingo du moduluko irakasle-taldeak.
6. DILANA gainditu ondoren, lortutako kalifikazioa hurrengo ikasturtearen bukaera arte bakarrik gordeko da. Hau aplikatzen da DILANA gainditu baina moduluko ikasgaiaren bat gainditzen ez duten ikasleen kasuan.

Dokumentu honen egileak: Alaitz Santos Pedagogia gradu IV. moduluko koordinatzailea, eta Joxe Amiana, J.F. Lukas, Sandra Rodríguez, Estibaliz Ceba eta Beñat Flores irakasleak.